




**HEZKUNTZA,
UNIBERTSITATE
ETA
IKERKETA
SAILAREN
1990 RAKO
AURREKONTUAK**



	1989	1990*
LEHENDAKARI	8.820.000	9.484.846
VICELEHENDAKARI	8.280.000	8.902.964
CONSEJERO	7.772.000	8.357.832
VICECONSEJERO	6.955.000	7.478.044
DIRECTOR GENERAL	5.727.000	6.158.390

* LAS RETRIBUCIONES DE 1990 SON LA PREVISION QUE SE CONTEMPLA EN EL PROYECTO PRESUPUESTARIO.

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXR 10157



1.990.eko abenduaren 31an bukatuko da Hezkuntza Ez Unibertsitarirako 88an sinatutako akordioa Administrazioa, CCOO, UGT eta ELAren artean.

Beraz, 1990rako aurrekontuetan akordio horren garapenerako bitarte ekonomikoak agertu beharko lirateke baina ez da honela izan, aurrekontu horien gehikuntza oso txikia bait da. Arrazoia bikoitza izan daiteke: Administrazioak akordioa garatzeko gauza haundirik egiten ez duelako edota akordioan ezer gutxi dagoelako garatzeko.

Edozein modutan ere, Hezkuntzarako aurrekontuen gehikuntza urriegi dela salatua izan da sindikatu eta sektore batzuren aldetik.

Eta nahiko ez bada akordioan onartu zutena betetzeko, askoz gutxiago 1987-88 ikaskurtean irakaslegoaren mobilizapenekin batera sortu zen plataforma bateratuan planteiatzen ziren hobekuntzak gauzatzeko.

1. BERAIEK PLANTEIATURIKOA EZ DA BETETZEN

Hezkuntzararako Aurrekontuetan agertzen den diru kopuruak ez ditu beteko Jaurlearitza berak hartutako konpromezuak:

-**Erdi Eperako Plan Ekonomikoan** 1990rako aurrekontuan B.P.G.ren %4,4, izan beharko litzateke. Hauxe, pezetetan, aurrekontuetan agertzen diren baino 1.700 milioi gehiago izan beharko litzateke.

-**Jaurlearitza hartutako konpromezuei** (Hezkuntz Akordioa, Ikastolen Publikazioa, Erreforma, ...) erantzuna emateko, gutxienez B.P.G.ren %4,8 izan beharko litzateke.

- Gainera, Administrazioak beste mailetan egiten duen modura, hots, **Europa eredutzat jo**, Hezkuntzarako aurrekontuak B.P.G.ren %6 izan beharko luke, hau da, 42.450 milioi gehiago.

Balorazio orokor honetan zer izan behar dugu kontutan, Transferentziak jaso zituztenetik hona, hauxe da Hezkuntzarako aurrekontuen gehikuntzarik txikiena -% 11-. Bestaldetik, 1990ko aurrekontu orokorren batabesteko igoera -% 12- baino txikiagoa da ere.

Eta ez da diru faltagatik, zeren eta beste Sailentzako igoera askoz altuagoa bait da:

Lehendakaritza eta Justizia	% 26,
Barne Saila	% 20,36
Lehendakaritza Ordea	% 16,20
Kultura eta Turismo	% 16,13
Garraio eta Lanarigo	% 13,56
...	
Hezkuntza	% 11

2. ESKOLA TRASFERITUAK BEHAR DUEN ALDAKETA EZ DUTE ORAINGO HONETAN EZARRI NAHI.

2.1. Ikastetxeen autonomiaren aurka

"Ikastetxeek autonomia ekonomikoa izan behar dute" entzuten dugunean ea Administrazioetik jasotzen duten miseria banatzeko bakarrik ez ote den susmatu behar dugu, aurrekontua ikusterakoan bereziki: 1989. urtean ikastetxeek jasotako diru kopuru eskasa kontutan hartuz, 1990erako Hezkuntza Sailak 222 milioi bakarrik gehituko dio ikastetxe guztien artean banatzeko

2.2. Ikastetxeetako egoera

Denok ezagutzen dugu ondo Ikastetxe transferituetako egoera txarra eta azpiegituran dituzten hutsuneak:

- berregokitze arazoak, eskolaurtean eta ertainetan bereziki.
- eraikuntzen eza edo egoera larria (gimnasia lekuak, laborategiak, ...), zenbait ikastetxeren egoera (zaharregiak, seguritate eza, ...)
- zerbitzu falta hainbat kasutan: garraioa, jantokiak, ...

Beti ere, Administrazioak daraman inbertsio politika urriari esker, eta inbertsiorako diru kopuru eskasari banaketa arbitrarioa gehitu behar zaio, politika konpentsagarria aurrera eramateko ardurarik ez bait zaio inoiz igerri. Aurtengo honetan ere, 1990erako aurreikusten den KPI baino txikiagoa den %5,3aren igoera proposatzen du Administrazioak.

Eta dirua egon badago: Hezkuntzan inbertsio guztietarako 7.748.413.000 pezeta emango dituzten bitartean, Barne Sailarako 9.919.863.000 pezeta agertzen dira aurrekontuetan.

2.3. Trasferentzia arruntak

Pertsonalگو kapituluaren atzetik, aurrekontuen ehunekorik altuena jasotzen du kapitulu honek. Batez ere, 1987. urtetik LODE martxan jartzean eta Baskongadetako kasuna hezkuntza pribatuan gainfinantziaketa ematen da kontraprestaziorik gabe (EAJ-k hasitako politika PSOEek jarraitzen du).

Trasferentzia arruntetako kopuru orokorra 47.876.800.000 pezeta, honela banatzen da:

- Hezkuntz Kontzertuak ordaintzeko 29.749 milioi. 1989.ko urtearekin konparatuz % 9,66ren igoera.
- Igoera honen aurrean, Hezkuntza Sailak beste erizpide mota izaten ditu kontutan bekatarako diru kopurua ematerakoan: 687 milioi gutxiago hezkuntza ez unibertsitarioan eta 1.100 milioi gutxiago unibertsitate mailan.
- Ikastoletako Publikazioerako 88/10 legeari jarraituz, ikastolei dituzten zorrak bereganatzeko, Hezkuntza Sailak 3.500 milioi zuzenduko ditu.

3. IRAKASLEGOAREN EGOERA GERO ETA TXARRAGO

Irakaslegoaren kupoa eta beraien soldatak dira hezkuntz aurrekontuetan agertzen den dirukopururik handiena -%43,45-, baina hau ere jeitsiz doa:

Atentzioa deitzen digute zenbait datuak:

- 15 goi mailako karguk (aholkulari, aholkulari orde, zuzendari eta herrialde Delegatuek) 100 milioi bereganatzen dute.
- 6 behinbehineko karguk (asesoreak eta konfidatzaizko karguak 32.000 milioi, gehi dietak eta kilometajea)
- EPA n ordu-extrak sartzen dituzten irakasleentzat 28 milioi

... Bitartean

3.1. Plantilak

Azken urteotako politika murriztaileari jarraituz, plantilak ia berdin mantentzen dituzte %1ko igoera. Hezkuntza Sailak jaiotze tasaren beherakada erabiltzen du aitzakitzat egoera hau justifikatzeko. Baina argi dago sasi-igoera hau ez dela nahiko Hezkuntz Sistematan sortzen diren behar eta zerbitzu berriei erantzun egokia emateko.

Administrazioak bere ustez "sobran" dauden irakasleak ikastetxeetatik ateratzen ditu eta, horrela beharko lirakeen hobekuntzak (pedagogikoak zein lan baldintzazkoak) ez dira gertatzen, kalitatezko hezkuntz sistemaruntz aurrera pausurik eman gabe, ierarkizazioa finkatuz.

Salagarria da, maila honetan, euskal irakasleak dituen lan baldintzak (ratio altuagoak -ikasle zein irakasle/gela-, eskola-ordu gehiago...)

PLANTILEN GEHIKUNTZA 89/9

	Funtzionarioak			Interinoak			Kupoaren Gehikuntza
	89	90	Dif.	89	90	Dif.	
OHoko Irakal.	9.050	8879	-171	562	737	+175	+4
L.H.Numerar.	901	898	-3	394	483	+89	+86
Tailer.Mais.	503	492	-11	51	74	+23	+12
Agregatuak	2.179	2182	+3	496	674	+178	+181
Katedratikoak	287	277	-10	-	-	-	-10

3.2. Ordezkapenak

Ordezkapenetarako aurrekontuetan agertzen den dirukopurua 274 miliotan igotzen da baina banaketa ez da batere egokia.

- diru kopuru gehiena, 240 milioi, birziklapenerako ordezkapenetan erabiliko dute.

- ikastetxeetan sortuko diren "bajak" betetzeko diru kopuru KP baino baxuagoa izanik: Eskolaurrean eta OHOn % 5,68 bakarrik igotzen da , eta % -2,6 Ertainetan jeitsi egiten da.

Era berean, salatzekoa da Administrazioaren joera hau kolektibo honen erreibindikapenak ez dituelako kontutan hartzen eta beraien lan baldintzak hobetzeko plangintza egokirik bultzatzen ez duelako.

3.3. Soldatak

Aurrekontuetan agertzen dena zera da:

- 1988an CCOO, UGT eta ELAK sinatutako akordioan onartu zen hirugarren igoera; berau, 88ko pezetetan 1990 urtarrilatik aurrera (8.199 pza.) gehikuntza izanik. Administrazioaren beste langileekiko berdinketa sakarialaren aurrean, eta ia ez dira igerriko zergen igoerarekin.

- Administrazioaren langileentzat, Jaurlaritzak %5aren igoera eskeini du mahai orokorrean (Urriari KPI %5,8 izan da eta) %7,5 ailegatzeko posibilitade. LABek KPI erreala baino puntu 2 gehiago exigitzen du eta 6 hilebetetzko berrikurketako egiteko konpromezua.